



GOBERNU BATZARRA

2022.05.31

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Xabier Balerdi Tolosa
Xarles Iturbe Pasaban
Begoña Tolosa Mendia
Jose M^a Villanueva Telleria

Ez da bertaratu:
Patxi Amantegi Zubiria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita biko maiatzaren hogeita hamaikan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2022ko maiatzaren 24koa.
2. «Oporrak Bakean Tolosaldeko Familietan 2022» programa onartzea, eta programa garatzeko beharrezkoa den kudeaketa izapidetzeko konpromisoa adieraztea Tolosako Udalak.
3. Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.
4. Onartzea Tolosako Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko, eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasuna bermatzeko aurkeztutako abala itzultzea.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO MAIATZAREN 24KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2022ko apirilaren 24an egindako ohiko batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



2. «OPORRAK BAKEAN TOLOSALDEKO FAMILIETAN 2022» PROGRAMA ONARTZEA, ETA PROGRAMA GARATZEKO BEHARREZKOA DEN KUDEAKETA IZAPIDETZEKO KONPROMISOA ADIERAZTEA TOLOSAKO UDALAK.

AURREKARIAK:

Saharar herriak duela 46 urtetik bizi duen ezohizko egoeraren ondorioz, milaka lagun Tindufen (Aljerian) dauden errefuxiatu-kanpamentuetan bizi dira; tartean milaka haur.

Oporrak bakean lankidetzeta-programa sustatzen da Tolosaldean ere, Fronte Polisarioaren gidaritzapean, eta horrela lortzen da udako bi hilabeteetan haurrak kanpamentuetatik ateratzea, eta mesede handia izaten dute garapenean eta osasunean.

Oporrak bakean programa garatzeko boluntarioen ekimena sustatzen da, izan harrera-familietan edo izan aterpetxeetan.

Tolosako eta Tolosaldeko herrien artean ekimen honekiko konpromisoa berresten dugu urtez urte. Hori horrela, programan parte hartzera datozen haurren bidaiak finantzatzeko laguntza ematen da, eta Tolosaldeko familietara datozen haurrak artatzeko programa bideratzen da («Oporrak bakean Tolosaldeko familietan programa»).

Kontuan izanik 2022IHTP0005 espedientean jasotako teknikarien txostenak eta kontuhartzaitzak adierazitako oharrak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea «*Oporrak bakean Tolosaldeko familietan 2022*» programa, eta Tolosako udalak adieraztea programa garatzeko beharrezkoa den kudeaketa izapidetzeko konpromisoa.

BIGARRENA: Programak eskualdeko izaera duenez, parte hartuko duten eskualdeko gainerako herriei hitzarmen-proposamena bidaltzea, programa honekiko atxikimendua eta parte-hartzeko konpromisoa adierazi dezaten, eta parte-hartze horrek dakarren konpromiso ekonomikoaren berri eman dezaten, honako klausula hauekin:

OPORRAK BAKEAN TOLOSALDEKO FAMILIETAN PROGRAMA LANKIDETZA-HITZARMENA - 2022. URTEA

Tolosan, 2022ko apirilaren

__(e)(a)n



BILDU DIRA

....., alkatea,ko Udalaren izenean,

Eta, Tolosako alkatea, Olatz Peón Ormazabal, Tolosako Udalaren izenean jardunez.

ADIERAZI DUTE

1) Duela 46 urtetik, saharar herria ezohizko egoera batean bizitzera behartua dago. Hori dela eta, 120.000 lagun Tindufen (Aljerian) kokatzen diren errefuxiatu-kanpamentuetan bizi dira; tartean milaka haur. Bertako baldintzak oso gogorak dira: udan 60º-tik gorako tenperatura egiten du, elikagai eta ur eskasia dute, osasun arreta murrizta... eta horrek guztiak kalte egiten die garapenean. Egindako kalkuluen arabera, udako bi hilabeteetan kanpamentuetatik atera eta bizi-baldintza duinetan bizitzeak onura ugari ekartzen dizkie neska-mutil horiei, eta aurrerapauso handia ekartzen die garapenean eta osasunean.

Oporrak Bakean programaren bidez, bi hilabetez, 8 urte inguruko haurrei honako hau eskaintzen zaie: otordu orekatuei esker, elikadura eskasiak eragindako gaixotasunak sendatzen dituzte, garapen osasuntsua sustatzen da eta desertutik kanpo beste errealitate bat badagoela ezagutzeko balio die. Bide batez, euskal familiek ere asko ikasten dute esperientzia horretatik, eta aniztasunerantz bidea egin eta giza-balioak indartzen dira.

2) Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena: Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatutako Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen.

Zehazki, honako aldaketa hauek eragin zituen lege berriak: udal eskumenen sailkapena egin zuen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak; Udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu; eta Udalen eskumenen egikaritza ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen mende jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, udalek berariazko eskumenak egikaritzeari lotuta. Gai horien artean, 25.2 artikulua e) atalak xedatzen du udalek, besteak beste, behar sozialeko egoeren inguruko informazioa eta ebaluazioa jaso eta baztertze egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta emateko arloan eskumenak beteko dituztela, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten ezartzeko eskumen propioak zehazten ditu; 13. atalean, zerbitzu sozialen kudeaketa, hain zuzen ere. -Bestalde, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuari buruzkoa den 6. artikulua ezartzen du beste sistema eta politika publiko batzuekin batera gauzatu beharreko helburu gisa, parte hartzearen sustapena. Era berean, 60.artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek



zerbitzuen prestazioa antolatu ahal izango dutela zenbait ereduren bidez, eta horien artean daude irabazi asmorik gabeko erakunde laguntzaileekin hitzarmenak. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioak ahaleginduko dira, egoki gertatzen denetan, aprobetxatzen gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak, zenbait printzipio aplikatuta koordinazio eta lankidetzarako, gizarte-ekimenaren sustapenerako eta baliabideen aprobetxamendu oso, arrazional eta eraginkorrerako.

3) Aurten ere, Tolosako Udalak antolatu nahi du Oporrak Bakean Tolosaldeko Familietan Programa, zeinaren bidez Saharako hainbat neska-mutil etorriko diren Tolosaldeko familietara uda-aldia pasatzera, haien osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin. Programa hau eskualdeko izaerarekin antolatzen denez, aukera eman da eskualdeko herri guztiek programan parte hartu dezaten, elkarrekin lankidetzan.

4) ko Udalak aztertu du proposamena eta erabaki du parte hartu nahi duela programa honetan: «Oporrak Bakean Tolosaldeko Familietan Programa 2022».

5) Jakinaren gainean daude programan parte-hartzeak honako konpromiso hauek hartzea dakarrela, eta horretarako garrantzitsua dela ardura hauek hartzen eta jarraipen egokia egiten lagunduko duten profesional adituak kontratatzea:

- Haurraren zonaldeko arduradunak dira.
- Haurren ongizatea zaindu behar dute.
- Zerrendan dituzten haur guztiez arduratu behar dute, horretarako harrera familia bat bilatuz edo horretarako aukerarik ez dagoenean, haren bidaiaren eta mantenuaren gastuei aurre eginez.
- Proiektua ahalik eta gehien zabaldu behar dute, ahalik eta harrera familia gehien lortzeko.
- Harrera familiak aukeratu behar dituzte (beharrezko elkarrizketak, bilerak... eginez).
- Aurretik Euskadiko Fronte Polisarioko ordezkariak eta Oporrak bakean Lan Taldeak ezarritako aurrekontuko kostuari aurre egin behar diote (bidaia, bisa, begiraleen kostuak...).
- Antolaketa prozesua aurrera eraman behar dute, programa bakoitzak nahi duen bezala antolatuz.
- Zaintzaren inguruko informazio baliagarria helarazi behar zaie harrera familiei.
- Haurrei jarraipen bat egin behar zaie, eta familian arazoren bat badute, konpondu.
- Sortzen diren egoerak kudeatu behar dituzte, ahalik eta erantzun positiboena topatzeko.
- Probintzia bakoitzeko arduradunekin harremanetan egon behar dute.

6) Hori guztia aurrera eramateko eta programaren funtzionamendu egokia bermatzeko, honako gastu hauek aurreikusi dira.

- Haurren bidaiak: 811€ haur bakoitzeko (Udal bakoitzak bere kabuz)



- Programa kudeatzeko laguntza-teknikoko zerbitzua: 9.103,72 €
 - a) Kanpaina garaian laguntza teknikoa: (hilabete eta erdiz lanaldi osoan)
 - b) Programa garatzeko laguntza teknikoa: (hilabete eta erdiz lanaldi osoz eta hilabete lanaldi erdira)
- Programa garatzeko: irteerak, taldeko ekintzak eta arreta pertsonalizatuko ekintzak: 3.000 € guztira.

Zerbitzua eskualde guztira zabaldu denez, kostuaren batezbestekoa egiterakoan, kontuan izan behar da bakoitzaren bidaiaz gain, profesionalen eta ekintzen gastuak parte hartzen duten haur guztien artean banatuko direla.

Beraz, parte hartzen duen herri bakoitzak zuzenean bideratuko du programan parte hartuko duten haurren joan-etorri bidaiak finantzatzeko egoki irizitako zenbatekoa, Tolosaldea Sahararekin elkartearen bidez.

Bestalde, hitzarmen hau onartzen bada, Tolosako Udalak kudeatuko ditu beharrezkoak diren bitartekoak (baliabide pertsonalak, materialak, garraiabideak...). Horretarako, kasuan-kasu, dagokion espedientea izapidetuko du, beti ere, hartuko diren haurren kopuruaren arabera dimentsionatuta beharrezko baliabide horiek.

Programaren garapenari dagokion finantziarioa Tolosako Udalak bere gain hartuko du hasieran, baina programa amaitutakoan, kalkulua egingo ditu, eta programan parte hartuko duten gainerako eskualdeko herriekin partekatuko ditu, programaren koordinaziorako, bitartekaritzarako, eta jarduerak finantzatzeko gastuak (kalkulu horiek egiteko eta finantziarioa osatzeko herri bakoitzak hartutako konpromisoetan oinarrituko da Tolosako Udala).

Beraz, eta soilik erreferentzia gisara, honako hau aurreikusten da: 6 hurrek parte hartuko dute programan, haur bakoitzak sortutako kostua 2.827 €-koa izango da, gutxi gora behera.

BI ORDEZKARIEK HONAKO HAU HITZARTU DUTE:

Lehenengoa: [REDACTED] ko Udalak baimentzen du Tolosako Udalaren ordezkaria den Olatz Peon Ormazabal Oporrak Bakean programa kudeatzeko dagozkion izapide guztiak egiteko: behar diren profesionalak kontratatu, egokiak diren talde-ekintzak finantzatu, hurrek behar dituzten laguntza-bidaiak egin eta abar.

Bigarrena: [REDACTED] ko Udalak, bere herriko familietan hartuko den/diren haur bakoitzarengatik dagokion mantentze-gastuak bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du, eta haur bakoitzeko batz bestekoa honako zenbateko hau izango da:

-Alde batetik, «Oporrak bakean Tolosaldeko familietan» programara etorritako haurren bidaiak-gastuak hartuko ditu bere gain.

Gastu horiek ordaintzeko prozedura, honako hau izango da: Fronte Polisarioak bidaien kostuaren zenbatekoa zehazten duenean, ekarpen hori egitea erabaki duten herriek zuzenean egingo diote ordainketa Fronte Polisarioari, Tolosaldea Sahararekin elkartearen bidez.

(ekimen hau hitzarmen honetatik at gelditzen da. Soilik informazioa osatze aldera jaso da puntu honetan)

-Beste alde batetik, «Oporrak bakean Tolosaldeko familietan» programara etorritako haurren jarraipen- eta jarduera-gastuak hartuko ditu bere gain.



Horretarako, Tolosako Udalari baimena emango zaio beharrezko gastuak finantza ditzan, eta programaren amaieran kontu guztiak itxitakoan, udal bakoitzak hartutako konpromisoaren arabera ordaintzea dagokion kopurua eskatuko zaio Tolosako Udaletik.

Hirugarrena: [redacted] ko Udalak adierazten du «Oporrak bakean Tolosaldeko familietan» programaren finantzazioan kolaboratu nahi duela, eskualde mailako izaera duen programa honetan hain zuzen, eta prest dagoela [redacted] €-ko ekarpena egiteko «Oporrak bakean Tolosaldeko familietan» programaren erakartze-kanpaina eta programaren garapen eta jarraipena egiteko beharrezko baliabideei dagozkien gastuak estaltzeko helburuarekin (Tolosako Udalari ordainduko zaio kopuru hau).

Edonola ere, behin Udal guztien konpromisoa ezagututa, eta programaren benetako kontuak eginda, Tolosako Udala arduratuko da proportzionaltasunez kalkulatzeko programa finantzatzeko beharrezkoak diren ekarpenak, gainfinantzaketarik ez dela izango bermatuz.

Laugarrena: *Ekarpenak egiteko prozedura honako hau izango da:*

Erakartze-kanpaina, jarraipen eta jarduera-gastuei dagokienean, Udalen arteko lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu ondoren, Tolosako Udalak koordinatuko du izen-ematea eta gainerako kudeaketa guztia Fronte Polisarioko ordezkariarekin (Koordinadorearekin) lankidetzan.

Tolosako Udalak egingo ditu dagozkion kontratazioak eta programaren jarraipenak. Puntualki, eta hala behar denean, egingo dira dagozkien udaletako teknikariek beharrezko koordinazioak.

Programa amaitutakoan, Tolosako Udalak egingo du gastuen zerrenda, eta programan parte-hartzen duen Udal bakoitzari eskatuko dio espresuki dagokion ordainketa egiteko.

Bosgarrena: *Hitzarmenaren jarraipen batzordea osatuko da hitzarmena onartzen duen herri bakoitzeko ordezkari banarekin. Jarraipen batzorde horren ardura izango da interpretazio arazoak argitzea, edota hitzarmenean adostutakoa betearaztea.*

Seigarrena: *Hitzarmenaren iraupena: 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko irailaren 30era. Era berean, konpromisoa hartutako ordainketa hori egiteko epearen gehienezko iraupena 2022ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.*

Zazpigarrena: *Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko araubideari buruzko urriaren 1eko 40/2015 legearen 47. artikulua eta hurrengoek arautuko dute.*

Hala jasota gera dadin, kontratugileek agiri honetan adierazitakoa berretsi, eta dokumentu hau eta bere kopiak sinatu egin dituzte Tolosan, adierazitako egunean».



HIRUGARRENA: Alkateari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

LAUGARRENA.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

BOSGARRENA: «Oporrak bakean Tolosaldeko familietan 2022» programa garatzeko honako baliabide hauek aurreikusten dira: (baliabide horietako bakoitza, kasuan kasu, *dagokion espedientea bere osotasunean izapidetuta formalizatuko da*).

1) Oporrak bakean programan parte hartuko duten *5 haur sahararren bidaia-gastuak* finantzatuko ditu Tolosako Udalak. Bidaia horiek finantzatzeko dirulaguntza izenduna izapidetuko da, Tolosaldea Sahararekin elkartearen izenean.

Aurreikusten denez, bidaia bakoitzaren kostua 811 € ingurukoa izango da, beraz, 4.055 €-ko gastua aurreikusten da (azken kopurua zehazteke); Tolosako Udaleko 2022ko udal-aurrekontuaren 0500. 481.01. 23100 partidaren kargura finantzatuko da, eta Tolosaldea Sahararekin Elkarteari emandako dirulaguntza izendun gisara izapidetuko da.

Dirulaguntza horren bidez Tolosan errolatuta dauden harrera-familietara datozen haurren bidaia gastuak, eta horiei laguntzeko bidaiatzen duten laguntzaile-proportzioaren bidaia-gastuak estaliko dira.

(Programak eskualdeko izaera badu ere, bidaien finantzazioa modu partikularrean kudeatuko du herri bakoitzak; hau da, herri bakoitzak adostuko du Tolosaldea Sahararekin elkarteari programan parte hartuko duten haurren bidaiak finantzatzeko zer ekarpen egingo duen).

2) Programa garatzeko laguntza teknikoko zerbitzua bideratuko du Tolosako Udalak, kontratu txiki bidez. Horretarako, Ana Trapero Urdangarinek aurkeztutako proposamena ontzat eman da, kanpaina garaian egin zen hilabeteko kontratuaz gain, emaitzak ikusita eta haur taldea sortu denez, beste bi hilabete eta erdiz bere laguntza teknikoko zerbitzuaren beharra aurreikusi da eta. Kanpaina garaiko kontratuak 3.150,96 €-ko kostua izan zuen, eta 2022ko udal aurrekontuaren 0500. 227.04. 23100 partidaren kargura finantzatu zen. Programa garatzeko kontratuan, 6.153,27 €-ko kostua aurreikusten da. 2022ko udal-aurrekontuko 0500. 227.04. 23100 partidaren kargura finantzatuko da. Zeregiri nagusi hauek aurreikusten dira zerbitzu horretarako :

- Programaren prestakuntza eta antolakuntza lanak egitea.
- Haurren ongizatearen jarraipena egitea, haurrak Tolosaldean dauden bitartean: haurren eta harrera-familien arteko egokitzapena erraztu, haurren ongizatearen eta garapenaren jarraipen zehatza egin, bizikidetzeta-gatazka egoeretan, herrimina edota gurasoen hutsunearen emozioak kudeatzerakoan



- eta gurasoei haurren eboluzioaren berri ematerakoan laguntza eman, eta programaren baitan aurreikusitako ekintzak eta jarduerak garatu.
- Behin programa amaitu eta haurrak beren herrietara itzultzen direnean, programaren kontu ematea edo memoria egitea.
 - Bidaiaren aurretik, hemen dauden bitartean, eta beren herrira itzuli ostean hizkuntza eta kultura-artekotasuna errazteko edo eta askotariko harremanak sustatzeko zeregina, haurren eta harrera-familien artean, gurasoen eta harrera-familien artean, haurren eta saharar komunitatearen artean, eta haurren eta Tolosaldeko gizartearen artean.

3) Haurrak Tolosaldera iristen direnerako, jarduera eta ekintza-plana prest izango du laguntza-teknikoko zerbitzuak. Ekintza plan hori garatzeko honako jarduera hauek aurreikusten dira: taldearen joan-etorrietarako garraioa, igeriketa ikastaroa, haurren jarraipenerako eta identitatea/babesa bermatzeko talde-ekintzak, hemengo kulturara gerturatzeko eta euskal gizartearekin harremanak izateko irteerak, haurren egunak eskualdeko herriko jaietan, osasun hitzorduetarako joan-etorriak... 3.000 € inguruko gastuak izango direla aurreikusten da, eta Tolosako Udaleko 2022ko udal-aurrekontuko 0500. 226.99. 23100 partidaren kargura finantzatzeko dira.

3. ONARTZEA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKOA.

AURREKARIAK:

2021eko abenduaren 17an erregistratu zuen Gizarte Politiketako Departamentuak Tolosako Udaleko erregistro orokorrean, 11077 zenbakiarekin, iraungita dagoen hitzarmen hori berritzeko proposamena.

Erregistro horren bidez Diputatuen Kontseiluak 2021eko abenduaren 7an hartutako erabakiaren berri ematen da.

Testuan argitzen duenaren arabera, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiak, 2021eko uztailaren 21eko bileran erabaki zuen egungo hitzarmenaren ereduari funtsezko aldaketarik egin gabe eustea 2021-2023 aldirako baldintza berriak jasoko dituen hitzarmen-eredu berrian.

Era berean, argitzen da Gizarte Politiketako Departamentuaren iritziz, onartu behar diren zenbatekoak beste administrazio publiko batzuei egindako diru-ekarpenak direla, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 3/2007 Foru Arautik kanpo geratzen direnak, haien helburua baita udalek nahitaez egin behar dituzten jarduerak finantzatzea.

Horiek horrela, erabakitzen du, besteak beste:



«**Lehenengo:** Onestea erabaki honen eranskin gisa doan hitzarmen eredua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin eta mankomunitateekin sinatzekoa, zeinaren helburua baita 2021-2023 aldian Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Foru Aldundiak finantzatzeko baldintzak zehaztea. (...)

Bigarren: Baimentzea 18.433.037,25 euroko gastua udalei eta mankomunitateei zuzendutako partidetan banatuta Gipuzkoako udalerrietan etxez-etxeko laguntza-zerbitzua emateko hitzarmenetik eratorritako betebeharrak ekonomikoki erantzuteko (...)

Hirugarren: Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea hitzarmenak sinatzeko eta beharrezkoak diren kredituak baimentzeko (...)

Laugarren: Era berean, ahalmena ematen zaio Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari, udalak etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateagatik egindako hiruhileko likidazioen ondoriozko zenbatekoak xedatzeko (...)

2022IHTP0003 espedientean jasota dauden teknikarien txostenak eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzekoa, honako klausula hauekin:

LEHEN. – Helburua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak sinatutako hitzarmen honen xedea da udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaia aldez aurretik adostuta.

BIGARREN.- Eskumena.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 42.4 artikulua araberak, zerbitzu hori udalen eskumen-eremuan ematen da, administrazio hartzaile gisa; aldiz, 41.3 artikulua araberak, lehen zerbitzuaren kudeatzaile ziren foru-aldundiei –beste batzuk esleitzen zaizkie eskusiboki, udalerrira batzuek zituztenak, hala nola mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitzak eta eguneko zentroak.

Eskumen-birbanaketa horren ondorioz, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean, hiru euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea aurreikusten da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa hornitzeko finantza-nahikotasuna bermatzeko.

Beste mekanismoarik ezean, ELZren baterako finantzaketarako lankidetzak-hitzarmen honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen arteko finantza-egokitzapenean laguntzen du, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat etorritik.



HIRUGARREN.- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak.

Hitzarmen honen seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, Gipuzkoako udalerrri guztietarako urteko gehieneko foru-finantzazioa 8.192.461 eurokoa izango da. Hiru hileroko ekarpena urtekoaren % 25a izango da. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak 18.433.037,25 euro finantzatzeko ditu guztira, eta honela banatuko ditu udalentsako eta mankomunitateentzako partidak:

1.0810.110.461.01.10-2021 2.020.107,00 €
1.0810.110.461.06.03-2021 28.008,25 €

5.0810.110.461.01.10-2022 8.070.821,00 €
5.0810.110.461.06.03-2022 121.640,00 €

5.0810.110.461.01.10-2023 8.070.821,00 €
5.0810.110.461.06.03-2023 121.640,00 €

Adierazitako zenbatekoek foru-ekarpenaren gehieneko zenbatekoa ezartzen dute, eta bi partiden artean alda daitezke, udalerrri bakoitzerako zifra errealean arabera, baina bi partiden baturaren emaitza beti izango da foru-ekarpenaren gehieneko zenbatekoaren berdina, eta, beraz, ez da aldatuko zerbitzuaren jarduerak hazkundera izan arren.

LAUGARREN.- Udalak bere gain hartutako konpromisoak.

Udalak Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua egokitu egin beharko du abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen eskumen banaketara.

Udalak emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordu bakoitzeko gehieneko tarifaren kopurua oinarritzat hartuko da seigarren klausulan araututako foru finantzaketa zehazteko, zehazki hauek:

VII. Ordu bakoitzeko asteguneko tarifa: 18,87 €

VII. Ordu bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 €

Zerbitzuaren orduko prezioa gehieneko tarifa baino txikiago balitz, foru ekarpenaren kalkulua egiteko erreferentziazat hartuko da 2022. urterako Udalean 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen orduko prezioaren kopurua, 2023ko urtarrilaren 1ean dagoena 2023. urterako eta urtarrilaren 1ean dagokion urterako, hitzarmen honen indarraldia luzatzen bada.

Udalerrri bakoitzean foru-finantzaketa gainditzen duen gastua udalak edo mankomunitateak hartuko du bere gain.

BOSGARREN.- Aldeek bere gain hartutako konpromisoak eta baldintzak ez betetzearen ondorioak.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek hartutako konpromisoak ez betetzeak bederatzigarren klausulan araututako Jarraipen batzordeari alegatuko zaizkio. Batzorde horrek aztertu, mailakatu eta erabakiko ditu hartu beharreko ondorioak eta neurriak.

SEIGARREN.- Foru finantzaketa.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion zerbitzu finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira aldagai hauek:

a) Hiru hileroko fakturazioa:



Eskaintako zerbitzuen ordu kopurua laugarren klausulan adierazitako zerbitzuaren tarifaz biderkatu ondoren ateratzen den emaitza izango da.

a) Koordainketa:

Erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.

c) Aldundiaren ekarpen teorikoa:

Zenbateko hori a) atalean adierazitako hiruheroko fakturazioaren eta b) atalean adierazitako erabiltzaileen koordainketaren arteko diferentzia da.

d) Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta:

Udalerrri guztien foru-ekarpen teorikoei koefiziente murriztaile bera aplikatzearen emaitza da, ekarpen horien batura hirugarren klausulan definitutako hiruhileko guztizko ekarpena baino handiagoa bada.

Koefiziente hori zatiketa honen emaitza izango da: Aldundiaren hiruheroko gehieneko ekarpena, aurreko paragrafoan adierazitakoa, Aldundiaren ekarpen teorikoen guztizkoaz zatitzea.

e) Aldundiaren oinarrizko ekarpena:

Ekarpena izango da d) ataletik ateratzen den emaitza - Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta bider % 75, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

f) Aldundiaren gehieneko ekarpena hobekuntzengatik:

Aldundiaren aurrekontuaren araberrako ekarpen teorikoaren eta Aldundiaren oinarrizko ekarpenaren arteko aldea da, eta zerbitzuaren eskaintzan hobekuntzak finantzatzeko erabiliko da.

Hobekuntzak direla eta, Aldundiaren gehieneko ekarpena udal mailan nahiz maila globalean egingo da (udalerrri guztien batukaria).

Hitzarmen honen I. eranskinean azaltzen dira hobekuntzen tipologia eta tipologia bakoitzari emandako ponderazioa.

Honela egiaztatuko dira:

Hobekuntzaren benetako aplikazioa ebaluatzeko erabili beharreko adierazleen formula kuantitatiboaren bidez; formula hori Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian adostuko da, horretarako eratutako Jarraipen batzordeak proposatuta.

g) Aldundiaren lehendabiziko ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:

Udalerrrian egindako eta egiaztatutako hobekuntza bakoitzerako f) atalean zehaztutako kopurua biderkatuko da hobekuntzari emandako ponderazioarekin.

Udalerrri mailan, modu horretan kalkulatutako zenbateko guztien emaitza izango da Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorra lehendabiziko hobekuntzengatik.

Udalerrri guztien baturak zenbateko globala emango du.

Halaber, aipatutako zenbateko globalaren araberr, udalerrri bakoitzari dagokion portzentaje bertikala kalkulatuko da.

h) Hobekuntza Fondoaren soberakina:

f) eta g) ataletan kalkulatutako zenbateko globalen arteko diferentzia da. Soberakin osoa birbanatuko da udalerrrien artean, g) atalean adierazitako portzentaje bertikalaren araberr.

i) Aldundiaren bigarren ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:

g) eta h) ataletan kalkulatutako zenbatekoen batura da.

j) Ateratzen den foru ekarpena:



e) eta i) ataletan zehaztutako zenbatekoen batura da.

ZAZPIGARREN.- Likidazioa.

a) Abonu sistema:

Hiruhileko likidazio prozesua sinplifikatzeko xedez, honela egingo da Aldundiaren oinarrizko ekarpenaren eta bigarren hobekuntzak direla eta Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorraren konputua:

- 1.- Lehendabiziko hiru likidazioak, oinarrizko ekarpenaren arabera, erabat.
- 2.- Laugarren likidazioa, berriz, hobekuntzei dagokien ekarpenaren arabera, erabat.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du, zortzigarren klausularen c) atalean jasotako hiruhileko naturala dagokion azken egunetik hasi eta hilabeteko epean, zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak, aurreko klausulan ezarritakoak, aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

b) Likidazio aldia:

Laugarren likidazioa osorik egiten denez hobekuntzengatiko ekarpenaren arabera, eta horrek izapidetze-prozesu gehigarri bat eskatzen duenez, likidazio-aldiak aurreko ekitaldiko azken hiruhileko naturala eta ekitaldi horretako lehenengo hiru hiruhilekoak hartuko ditu, honela:

1. likidazioa: urria, azaroa eta abendua.
2. likidazioa: urtarrila, otsaila eta martxo.
3. likidazioa: apirila, maiatza eta ekaina.
4. likidazioa: uztaila, abuztua eta iraila.

Foru aurrekontu-ekitaldia ixteko epeak lehen likidazioa (urria, azaroa eta abendua) ordaintzeko epeak baino lehenagokoak badira, likidazio horren hiruhileko ordainketa konturako aurrerakintzat hartu ahal izango da.

Ordainketa horrela egin bada, egin beharreko hurrengo likidazioan dagozkion doikuntzak egingo dira, zenbateko teorikoko aldietan artatutako erabiltzaileen benetako kopuruaren arabera.

ZORTZIGARREN.- Informazio sistema.

a) Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu beharrezkoak diren datu guztiak, gutxienez jarraian aipatzen direnak: zerbitzuaren prezioa eta kostua, pertsona bakoitzeko xehetasuna zerbitzuaren ordu kopuruari dagokionez, erabiltzaileen koordainketa eta, behar bada, aplikagarri zaizkion hobekuntza motak. Hori guztia helburu hauekin:

- 1.- Zerbitzuari dagokion likidazioa egitea.
- 2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea gai hauen inguruan: mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta eta, hala dagokionean, beste kolektibo batzuei emandakoa, hobekuntzen ezarpen eraginkorra, eta bete gabe egon daitezkeen beharrak.
- 3.- Arreta jaso duten mendeko pertsonen buruzko datuak ematea IMSERSOri, kontuan hartuta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak definitutako espezifikazioak, araudiaren aipamen hauen bidez zehaztutakoak:
- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema arautzen duena (BOE 302 zk., 2013/12/18, I. atala, 100.833 orrialdea).

- 1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-



egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak arautzen dituen (BOE, 313, 2013/12/31 I. 107128).

b) Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna informatiko egokia eskainiko du, hau da, Extranet SAD.

Tresna horren erabilera eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalaren eskura bertsio aurreratu bat jartzen duen neurrian, Udalak azken tresna hori erabiliko du.

a) Hauek dira informazioa bidaltzeko gehieneko epeak:

- a) lehen hiruhilekoa: apirilak 30
- b) bigarren hiruhilekoa: uztailak 31
- c) hirugarren hiruhilekoa: urriak 31
- d) laugarren hiruhilekoa: urtarrilak 31

d) *Likidazio sistemak udalerrri guztiei dagokien informazioa izatea eskatzen duenez, epe hauek amaitu ondoren, informazio hori bidali ez duten udalei posta elektronikoz jakinaraziko zaie astebeteko epe luzaezina dutela eskatutako informazioa aurkezteko. Azken epe hori ez betetzeak hiruhilekoari dagokion likidazioa galtzea ekarriko du, eta udalerrria kanpoan utziko da kalkulu guztiak egiterakoan.*

BEDERATZIGARREN.- Jarraipen Batzordea.

Jarraipen Batzorde bat eratuko da, alderdi sinatzaileen arteko lankidetzarako bidea izango dena. Alde biek ordezkari-tza paritarioa izango dute.

Gehienez ere 12 hilabeteko epean eratu beharko da, hitzarmen honen indarraldiaren hasieratik zenbatzen hasita. Une horretarako, beren funtzionamendurako barne-arauak eta erabakiak hartzeko modua, alderdien ordezkariak, pertsona horiek beren gain hartutako karguak eta eginkizunak, eta deialdien forma eta maiztasuna ezarrita egon beharko dira. Alderdietako batek eskatzen duen guztietan bildu beharko dira, eta, edonola ere, urtean behin gutxienez.

Batzordeari esleitutako eginkizunak izango dira alderdiek hartutako konpromisoak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea, eta hitzarmen hau interpretatzean eta aplikatzean sortzen diren gai guztiak ebaztea.

Batzordeak hitzarmen honetan aurreikusitakoaren arabera funtzionatuko du, eta, osagarri gisa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. Kapitulua Hirugarren Atalean xedatutakoaren arabera.

HAMARGARREN.- Hitzarmena amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak.

Hitzarmen hau bere xede diren jarduketak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean iraungiko da:

Indarraldia amaitzea, indarraldia luzatzea erabaki ez bada.

- a) Alderdi sinatzaileek hala erabakitzea.
- b) Aldeetako batek hitzarmenari uko egiten badio; kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteko aurreikusitako eguna baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste alderdiari.
- c) Aldeek hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.



- d) *Deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judizialagatik edo legetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.*

HAMAİKAGARREN.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluaren xedatutakoaren arabera, eta ordenamendu juridiko administratiboak agintzen du hura interpretatu eta garatzeko, eta alderdiek berariaz onartzen dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioa.

HAMABIGARREN.- Datuen babesa.

Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute honako hauek xedatutakoa betetzeko: Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta 15/1999 Lege Organikoa Datu Pertsonalak Babesteko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua.

HAMAHIRUGARREN.- Aldaketa.

Hitzarmen hau aldatzeko, sinatzaileen esanbidezko adostasuna beharko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. g) artikulua arabera, dagokion aldaketa-gehigarriaren bidez, hura sinatzeko izapideari jarraituz.

HAMALAU GARREN.- Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta ondorio ekonomikoak izango ditu, 2021eko urriaren 1etik aurrera, eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du. Hitzarmen hau berariaz luzatu ahal izango da, amaitzen denean, urte natural bateko aldietan, betiere luzatutako ekitaldirako aurrekontu-zuzkidura egokia eta nahikoa badago.

Hitzarmenaren eta luzapenen gehieneko iraupena lau urtekoa izango da, salbu eta epe luzeagoa aurreikusten bada arau bidez.

Hala ere, hitzarmena sinatzen duten alderdiek aho batez eta aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu baino lehen adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea.

KLAUSULA IRAGANKORRA.- Hitzarmenak jasotzeko gehieneko epea eta ondorioak lehen bi likidazioetan.

Hitzarmena 2021eko azken hilabeteetan onartzea aurreikusten denez, litekeena da udalek eta mankomunitateek hitzarmenak onartu eta sinatzea hiruhileko bat baino gehiago atzeratzea. Horrelakorik gertatuz gero, hiru hileko ordainketa konturako aurrerakintzat hartu ahal izango da, gehienez ere bi likidaziotarako.

Dagokion Udalak / Mankomunitateak hitzarmena sinatu beharko du hirugarren likidazioa kalkulatzeko unea baino lehen.“

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea



4. ONARTZEA TOLOSAKO BEOTIBAR PILOTALEKUKO OSTALARITZA ERAIKINAREN TEILATUA ETA FATXADA BIRGAITZEKO, ETA PILOTALEKUKO ERAIKINEKO IRISGARRITASUNA BERMATZEKO AURKEZTUTAKO ABALA ITZULTZEA.

Kontratuaren xedea:	Tolosako Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasuna bermatzeko obrak.
Kontratu mota:	Obra
Tramitazioa:	Ohikoa
Prozedura:	Irekia
Esleipenaren data:	2018/05/21
Eskatzailea:	Iparragirre Eraikuntza Lanak, SL (ordezkaria: Patxi Mirena Albisu Estensoro)
Sarrera data: (erregistro elektronikoa)	2022/03/25 (sarrera zk. 2022-3850)
Espedienteak:	B.5.2.1. /2018/0007 2022H3440003

AURREKARIAK

Tolosako Udalak, 2018ko maiatzaren 21ean, Iparragirre Eraikuntza Lanak, SL enpresari esleitu zizkion Tolosako Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasuna bermatzeko obrak (espedientea: B.5.2.1./2018/0007).

2018ko maiatzaren 11n, Iparragirre Eraikuntza Lanak, SL enpresak 20.238,47 €-ko bermea jarri zuen.

2022ko martxoaren 25ean, Iparragirre Eraikuntza Lanak, SLk, Patxi Mirena Albisu Estensorok ordezkatuta, jarria zuten bermea itzultzeko eskaera egin zuen.

Aurkeztutako eskaeraren aurrean, 2022ko maiatzaren 19an, udal arkitektoak txostena (AB22052) egin zuen eta, laburbilduz, honakoa dio: "(...)"

TXOSTENA:

ESKUD9501522-24fc-4ed0-9a9e-b281787c6d6e



Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko irisgarritasuna bermatzeko obraren jasotze akta 2019ko urtarrilaren 15ean egin zen.

Obra kontratuaren klausuletan adierazten denaren arabera, HIRU urteko berme epea ezarri zen, jasotze aktaren sinatze datan zenbatzen hasita.

Gaurko datan, ezarritako berme-epe hau dagoeneko bete da.

2022ko maiatzaren 18an, Beotibar pilotalekua ikuskatu da (obra esparrua): bertan ez da aurkitu bermeari eragiten dion kalterik.

Beraz, enpresak ipinitako behin betiko bermea itzul daiteke.

EBAZPEN PROPOSAMENA:

*Hori guztia ikusita, eskatutako abala itzultzearen **ALDEKO txostena** egiten da:*

LEHENA: *Hiru urteko berme-epea behin amaituta eta ikuskapena eginda, Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko irisgarritasuna bermatzeko obrari dagokion behin betiko bermea itzul daiteke, 20.238,47 €-koa.*

BIGARRENA: *Kontuhartzaitzari jakinarazi.*

HIRUGARRENA: *Espedientea itxi eta artxibatu daiteke”.*

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Aplikatu beharreko legeria honako hauek ezartzen dute:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzeko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 107., 111. eta 243.3 artikulua eta bigarren xedapen gehigarria.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorren 65. eta 169. artikulua.

II. Kontratazio organoari dagokio kontratistak jarritako behin betiko bermea itzultzea (9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarria). Tolosako Udalari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio, hortaz, organo horri dagokio jarritako behin betiko bermea itzultzeko onespena ematea.

AZTERKETA JURIDIKOA

Aintzat harturik aurretiaz esandakoa, adierazi daiteke espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola; beraz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, kontratazio organoari dagokio aurkeztutako abala itzultzeko erabakia hartzea.



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0013

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal arkitektoak egindako txosten teknikoa, aplikatu beharreko lege-xedapenak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Eraikuntza Lanak, SL enpresari itzultzea Tolosako Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasuna bermatzeko obrak direla eta Tolosako Udalean aurkeztutako abala, kopurua hau duena: hoge mila berrehun eta hogeita hemezortzi euro eta berrogeita zazpi zentimo (20.238,47 €).

BIGARRENA.- Erabaki hau Udaleko kontuhartzaitza sailari zein interesdunari jakinaraztea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:05ean.

ALKATEA

IDAZKARIA

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxe: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus
17

www.tolosa.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUd9501522-24fc-4ed0-9a9e-b281787c6d6e**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGBA0013-2022-05-31 Gobernu batzarra akta/2022-05-31 Gobernu